

# 74R

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

198n. zenbakia Uztaila/Dagonilla  
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURAGAILU  
LAGINTOAN I.E.



**GORDEXOLA  
(BIZKAIA)**

**DONIBANE ELEIZEA**

## EGIZKO MAITASUNA

## ALDAKUNTZAK

Egizko maitasunak itxaron egiten dau.

Mundo ontako izakiak eta gizakiak oso aldakorrek ditugu. Itxasoko olatuen antzera aurrera eta atzera egiten dabe.

Gaur egun, zorionez, maitasunari buruz aldakuntza onuragarriak agertzen asi dira. Eta garbitasunaren aide ekitea aurrerapena dirudi.

Joan diran azken urteetan seksu nasaikeriak makiña bat zaparrada eta naasteak erabili ditu lurbira osoan. Eta noraino etorri gara? Zeintzuk dira maitakeri eta seksukeri onen ondorenak? Ara emen: grifia gaiztoen morroitzia gorria; sendi bizi-tza eten eta zatitzea; jaió bako aurrak galtzea; ezkonbako neska aurdunak ugaritzea; gaixoaldi galgarriak agertzea.

Gaur egun, lenagoko baten seksukeriaren aldekoak, eta gure kontrako pentsalari zorrotzenak be, izugarrizko biraldia izan dabe. Eta euren arteko batzarretan argi ta garbi adierazo dabe gizadiaren kalterik gorriena neurri bako grifia eta nasaikeria dirala.

Ori dala ta, gaur, garbitasunaren aide jokatzera aurrerapena da USA'n. Eta ernai ta zurt egoteko dei larria egin dabe. Zer ikusi eta nabaitu dabe? Sidaren eta beste izurrien kalteak; gazteek ikasketak galtzea; sendiaren zatitzea; eta ainbeste zoritxarrak gureganatzea.

## JOKABIDEAK

Zeatz eta argi esateko, USA'n, eta CANADA'n, egiñalak egiten ari dira gaztedia zuzenbideratu eta ezkongabeak seksu egitetik alderatzeko. Nortzuk dira burubide ontan buru belarri saiatzen diranak. Ez dira, ez, eliztarrak edo elizaren aldekoak, ezta be gaur egun esan oi danez "leengo eskubitarrak", edo ta antxiñako ekanduen euslariak. Eta bai sinisbako giza-semeak eta esker aldeko lagundietan dagozanak. Zer dala ta ori? Bizia, gaztedia, eta biotz garbitasuna gizadi sendo eta zuzenaren oñarriak diralako.

Zer esanik be ez. Jokabide oneik erriaren eta gaztediaren ederra irabazi dabe. **NEW YORK TIMES** albistariak dakarrenez Californian bertan 180.000 neska mutillek ikasi ta ikasi dabiltz euren buruak biotz garbitasunean eutsi ta jago-teko ikasaldietan.

URBAN LEAGUE eta beste 27 lagundik artu daben egi-

tamau auxa dogu: gazteai erakutsi eta lagundu munduko giro txarreko kateak ausi eta euren buruen jabetasuna izateko. Gazte guztiak erakutsi nai dautse, euren izkeran eta tankeran, gauzarik oberena seksu egitetik alderatzea dala. Zergaitik? Zeksukeri eta beste grifia txarrak ondamentia eta atze garratza dakarrelako. Ikasketa onein bidez emoten jake gazteai azierarik zindoena.

Leengo urteetan maixu geienak zeri ekiñ eutsen? Seksu ezaupena, seksu aziera, jaió kontrola ta tresnak, sidaren arriskuak, seksutik datozen gaixoak, etabar, erakustea. Gaur egun, egirik aundiena auxa da: ezautze eta jakite utsak ez dautso giza semeari egizko aziera, biotzaren indarra, eta buruaren jabetasuna emoten. Eta oraiñ iru gauzetan saiatu nai dira: grifia aurre-egiñ, seksu sare artean ez jausi, ta munduko nasaikeria azpiratu.

Eginbide barri au Atlanta'ko Ikastetxe Nagusian asi zan eskolatzen. Lenengotan irri ta bane ta izekak izan zituan. Gaur egun bere ekarri onakaitik lagun askoren abegi ona eta txaloak irabazi ditu. Eta nork esango? Eginbide oneik, Telebista bidez, aizeratuak izan dira.

## JAIALDIAK

Datorren udaldirako SUR aldeko itunbenak jaialdi bat egiñ nai dau Washington uriburuan, gaztediari deiturik goiburua onegaz: "Egizko maitasunak itxaron egiten dau". Jaialdi ontera millaka gazteak, siniste gustietakoak zelairatuko dira. Lizunkeriarren oi basatiak entzun bearrean, antxe aizeratuko dira biotz garbitasunaren ametsak eta abestiak. Eta oiuka aldarrikatuko dabe ezkontzara-arte garbi irauteko asmoa. Beste jaialdi bat ospatuko da Otawa urian.

Bai, gauzak aldatzera doaz. Neska mutilen artean lagundiak egiten asi dira biotz garbitasunaren aide. Ez dira gazteak bakarrik. Ikaste etxeetako maixuak, telebistan agiri diran antzezleri ospetsuak, kirolari aipagarriak, bildur eta lotsa barik adierazo dabe biotz garbitasunean bizi dirala eta bizi azoten alegintzen dirala.

Etorriko al'da Euskadi'ra biotz eragiñ eta biotz garbitasun ori. Ai, ba'letor..

## URIGUEN'TAR ZENON

## JIMENEZ'tar JOXE MARI

Jimenez'tar Joxe Mari il da. Gure Elkartea'ren Sortzalleetakoa, edo sortzallea, obeto esanda, bera izan bai zan au egiteko burutapena eta kemena izan zituna.

Sortze onen edesti laburpena egingo det, bere oroimen eta omenez.

Aspaldian gebiltzan biok, beste talde batekin, Euzkera eta Euzkadi'ren aide zerbait egin nayeon. Talde ura zenbait gertakizun zirala ta autsi egin zan. Orduan gu biok zerbait egiten jarraitu nai izan genun, idatzi e.a. Orrela gutxi egin zitekela ikusita, Joxe Mari'k izan zun ekartea sortzeko burutapena. Au egiteko beste bi lagun, gutxienez bear genitun eta Urkiola'tar Xabier eta Mugi-ka'tar Imanol'ekin itz egin eta orrela osatu genun Batzordea.

Artzelus'tar Amale'k  
(ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK)

Agur ba Joxe Mari, gero arte!

## EUSKALDUNAK ETA FUEROAK (III)

**Xeetasun batzuek...** Emen aipatuko ditugun gauza asko, ez dira batere atsegingarriak, bai ordea, bear-bearrezkoak esango ditugunak zuzen ulertzeko... Eta Adrian Celaya izango degu gai auetan maixu... Eta ona-emen zer esaten digun lendabizi ta bein: askotan entzun izan ditugula "militarren fueroa", "elizaren fueroa" eta iri-sortu-berri bateri ematen zaion "fueroa"... Eta auek-danak erregeak emandako mesede-antzeko zerbait diranez (privilegios), ortik pentsatu dezake batek FUEROAK ere orrelako-zerbait dirala: privilegio-utsak... Eta ala izatera, ez dauka inork zergatik gaitz-etsi karlisten bruzagiak, beren adierazpene-tan, zentzu-berdiñean ibiltzen ba-dituzte "Fuero" eta "Privilegio" itzak... Eta iritzi ortakoa zan leen aipatu degun Llorente jauna ere, au esaten digu-nez: "Privilegios concedidos por unos monarcas y que, el consiguiente monarca de turno, los anular cuando se le ocurra".

**Privilegios...** Ez da, bada, Fueroen-aurkako inungo pekatu-rik, erregeen mesede-antzeko doai eta eskubideak (privilegios) Fueroen-barruan dau-dela, esatea... Fueroen-aurkako pekatua da ordea, eta pekatu aundia, mesede-antzeko doai eta esku-bide oiek osatzen dutela Fuero-Osoa, esatea... Oietzaz-gaiñera, Fueroa beste auek osatzen bait-dute batik-bat: erriak bere Lege eta Araudi biurtu dituan "jokabideak eta oiturak"... (usos y costum-bres) ...Onela bait-dio "Jakintsua" deituriko Alfonso'k: "Fuero es cosa en que se encierran dos cosas: uso e costumbre: que cada una de ellas ha de entrar en fuero para ser firme...". Eta Llorente bera ere ez dago gaizki au esatean: "Los fueros son unas leyes nacidas del uso y de la costum-bre"...Eta Salcedo'k berriz: "Es lo que dijeron los vizcainos en la redacción de sus fueros: que habi-an de fuero, uso y costumbre y establecian por ley...".

**Lege biurturiko Fueroa...** Bada, ba, mesede-antzeko doai eta eskubideetik (privilegios) sortzen da Fueroa, eta baita erri baten "jokabidetik eta oituraetatik" (usos y costumbres) sortzen dan, eta

Lege biurtzen dan Fueroak ere... Eta onela aidie-razten digu au Adrian Celaya'k: "El fuero es fruto de la costumbre. Esta, la costumbre, se va convir-tiendo lentamente, en norma obligatoria. Es, por tanto, derecho elaborado por el pueblo y que luego el Señor lo confirma...". Eta antzeko-azalpen au egiten digu Novia Salcedo'k ere: "fueros, leyes, uso o costumbres, cualquiera de estas voces desig-na las prácticas, máximas o reglas con que se gobernaban...".

**Idatzitako Fueroa...** 1452-garren urtean, Idoi-balzaga'n ospatu zuten bizkaitarrak beren Batzar-Nagusia, eta erabaki garrantzitsu au artu zuten bertan: Bizkai'ko Fueroa idatzi-eraziko zuan Bat-zorde bat eratzea, alegia.. An-artean ez bait-zego-an idatzia Bizkai'ko Fueroa... Eta 1527-ko Gara-garrilla'ren 7'an onartu zuan I-Carlos'ek Vallado-lid'en idatzirik aurkeztu zioten Fuero au, leen IV-Carlos'ek, "Católica" deituriko Isabel'ek, Fernan-do Erregeak eta Juana erregeñak onartu zuten bezelaxe... Idatzitako Bizkai'ko Fuero au, bada, XV-XVI gizaldi-bitartean azaldu zan...

**Novia Salcedo...** Bi iturrietako urak bezelaxe dira gure Fueroak: mesede-antzeko doai eta esku-bietatik datozkigun Fueroak batzuek (Fuero-privi-legio), eta erriko jokabide eta oituretik datozkigu-nak besteak. (Fuero, uso y costumbre). Lenengo aipatu ditugun oiek, beste bi izen auek ere artzen dituzte: "Fuero berezia" edo ta "erri berezi bateko Fueroa...".

Mesedegarria da danontzat, Fuero-kontu auek ondo ezagutu ditzagun, eta Estadu osoan zabaldu ditzagun gure ezagutze auek... Ez bait-dakite Fue-roa zer-danik ere...! Eta esan degun onen lekuko, Madrid'eko Korteetan diputadua izan zan, Novia Salcedo degu bat... Ona-emen bere itzak; "que casi todos los conflictos que continuamente ocu-rrian a las diputaciones generales encargadas de la conservación de sus fueros, provenian, no de la mala voluntad del gobierno supremo hacia estas leyes, sino del equivocado concepto de sus ofici-nas acerca de su origen y naturaleza...".

Eta Novia Salcedo'ren garai artan Madrid'en gartatzen zan gauza-bera, gertazen da gaur-egun gure artean ere... Ba'dira urte batzuek Autonomia'ren-jabe generala, eta baita Estatutoa'ren jabe generala ere, eta ala ere, ez dira oraindik gure arteko eztabaidak bukatu... Bizi-bizirik daude baizik.. Eta Novia Salcedo'k ematen zuan arrazoi berdiñagatik orain ere: "el equivocado concepto de sus oficinas acerca de los fueros y acerca de la naturaleza de los mismos..".

Eta au-dana, euskaldunon eskubideak onartu nai ez dituztelako, eta ortarako eskubiderik ala ez, jakin nai ez dutelako ere...

**Foronda arabarra...** Ez dira beti kanpotarrak izan ordea, euskaldunon-aurkako txepelkeri aukerak izan dituztenak.. Izan dira, orrela jardun izan duten bertako batzuek ere... Eta Foronda arabarra izan zan oietako bat... Ikus: "Los Fueros sólo encandilan a las gentes incultas". Eta are geiago: "los vascos tienen una fatua vanidad de sus casas solares y un desprecio insufrible de toda nobleza que no venga de ellos...".

**Godoy'ri saldua...** Fuero-kontu aukerak aipatzen asi giñan bezein laister, aipatu bear izan genduan Llorente errioxatarra... Eta ez bera goraltzeko asmoz, aldarantziz baizik... Bera izan bait zan, gaur argi-ta-garbi ikusiko degunez, Godoy'ek aukeratu zuan gizona, gure Fueroen ikuspegi oker bat zabaldu zezan... Eta auxe zabaltzen alegindu zan errioxatarra: gure Fueroak erregeek emandako doai edo eskubide batzuek besterik ez zirala, alegia... (privilegios)... Eta Menendez Pelayo'k ere arrazoi-antza ematen diola, esango genduke, au irakurtzean: "Lorente tenía razón en muchas cosas, mal que pese a los vascófilos empedernidos...". Baiñan ez...! Menendez Pelayo ez zan tonto bat, eta ona, zer dion geroago: "escribió asalarado por Godoy para preparar la abolición de los fueros y nobles costumbres de aquellas provincias, mal miradas por el Gobierno...". Eta azken-batean eriotz-azkona sartzen dio barru-barru: "Lorente procedió de mala fe truncando y aún falseando textos y adulando servilmente el poder regio...".

**Personaren nortasuna eta duintasuna...** Personaren nortasuna eta duintasuna osoki babesten duan Logroño' n emandako Fuero au, Euskal-erri'ko Udal guzti-guztietara zabaldu zan ia... Izan

ere, eta Celaya'k esaten dugunez, "odol-garbiko" (hidalgos) aitortzen ditu Fuero onek bere mendeko guztiak: "jaun" alegia... Eta orduan ez zegoan "jaun" bat torturatzerik... eta zerga guztietatik ere, aske izan oi ziran orduan "jaunak": odol-garbi-koak...

**Odol garbiko...** Erregeak ere, aitortu izan zuten iñoiz, "odol-garbiko" (hidalgos) zirala euskaldunak...

XVI-garren gizaldian, esate baterako, Juan Garcia'k "De Hispanorum Novilitate" liburua idatzi zuan... Eta au esaten du bertan: euskaldunen "odol-garbiko" izate ori ez dala antziñako gauza... Eta esaera onek, Bizkai'ko Jauntxoan asarre bizia sortu zuan, eta II-Felipe'rengana jo zuten aukerak 1590-ko Urterrilla'ren 20'ean, auzia garbi zeezan... Eta bildu-erazi egin zituan erregeak argitaratutako liburuaren ale guztiak, bertan esandako ori egilleak zuzendu zezan...

Eta antzeko beste zeozer egin zuten "Escorial" jasotzen ari ziran euskal-argiñak ere... Auetako bat zigorkatu nai izan zuan, bein, nagusiaren borraru batek: 40 zigoakada eman... Ori jakitean, lanari uko-egiteko meatxua zabaldu zuten beste danak, au esanez: "odol-garbiko bat" (hijodalgo) ez zego-ala zigortzerik, ez nagusiaren aginduz, ez-eta borraruaren gogoz...

DONATO ARRINDA  
ANASTASIO ALBISU



## ARGIUNEAK



### Errepublika (14-IV-35)

- Gaurko egunez, Alfonso XIII'nak aide eginda gero, sortu zan Errepublika.
- Eta, ze izan zan errepublika ori?
- Askatasun guztien aize-bolara.
- Ez, motza baizik... Sei urteetara nekez eldu.
- Gazterik il zan...
- Iru urte eriotz eta odol, bear izan ebezen, bera lurperatzeko eta

oraindik an dago lurpean...

- Bai, txotxo, gaur ez iñor begaraz akordaten be.

### Ostiral Santu

- Errepublika eta Ostiral Santua askotan etorri dira bat.
- Egun berean?
- Bai, tarteka ala gertatu oi dira alkarrekin. Errepublika be odoletan il eben.
- Bañan, Jesus'ek gurutzetik salto egin dau betiko bizitzari.

Jakiña, Garizuma izan da Pazkoaren ataria eta prestakizun guztiak (barauak eta aragi-usteak), danak izan dira Pazkorako.

- Gaur eguneko aragi-usteak zer dira ba?
- Eta, zer dira?
- Errioxako sakristau batek here parrokoar esandakoa.
- Eta, zer esan eutson ba?
- Etxera konbite egin eutson parrokoak sakristauari, bijili egun batez eta Iegatza euken jateko. Sakristauak apaizari: - Apaiza, zeuk orrela egiten dozu aragi-ustea? - Bai. Zer, ba? - Neuk orrelan egunero egingo neuke... -zalan egiten dozu bijili-eguna zeuk? - Pipartxo bategaz.
- Sakristauak arrazoi.

### Pazko eta Aberri Eguna

Ostiral Santua ez da azkena.

Zer da, ba?

Bertso aiek gogoratzen ditut:

Illunago  
ta argiago  
argia datorrean  
illunbetik.  
Gau illunean illuna.  
Egun-sentian,  
jai-eguna,  
argiaren argia...

piztu bait da illartetik  
Jainko bizia.

Oiu luze, zabal!  
Erne, Gizadia!

Itxaropena sortu da:  
gurutzetik, argia...  
Eriotza garaille ba'zan  
galdu dau eztena  
Giza Semearen aragia  
zulatzean...

- Orrelan begiratu ezkerro,  
gurutzeak tranpolin baten antza  
dauko: eriotzetik salto argira.

- Betiko Pazkoarako bidea.

- Eta, Aberri Eguna?

- Ba, orixe berberori. Aberriaren piztuera nai. Berrogei urtez ankapean arlosa baten barruan, argirik gabe, illunpean usteltzen; baña, Aberri baten egunean, onela zion olerkariak:

"Ames egin dut, egin dut ames

ikusi dut eun milla erromes.

Bitzak alai, alkondara garbi

berriro sortzen ari zaizkigu

mendietako larrosa-gudari.

Millaka mutil gazte


millaka gaztedi...

Zimaure artetik larrosa gorria

Euzko Gaztedia

sortu zaigu berriz.

Ai, betirako balitz!"



### Ñ eta LI dirala-ta

- Ostera be, gai ori dakartzu gure artera?

- Berak badu bere garrantzia: izkiak aldatu dituzte benetako zentzurik barik eta historiaren bideak alderatuz.

- Zelan dakizu zeuk?

- Mañarikua Andres, historigille ospatsua zan Bizkaia'n.

- Liburu asko daukoz atarata.

- Oien artean bat auxen da:

"Alava, Guipuzcoa y Vizcaya, a la luz de la Historia".

Durango'n L. Zugaza'k argitaldua, 1977'an.

- Eta, zer diño liburu orrek?

- 32'garren orrialdean Alfonso XI'garren dokumentu bat dakar eta onela dio 1332'an: "Nos otorgaron la tierra de Alava, que oviessemos ende el "sennorio" et fuesse regalenga eta la pusieron en la Corona de nuestros "regnos".

- Orra bi era: hata bi n'gaz eta bestea gn.



## ALBISTEAK

- Liburuaren orri berdiñean, beerago au dakar: Bizkaiko Juntak Aretxabalagana'n biltzen zirala "lugar do suelen facer la junta cuando toman "señor".

- Irugarrena.

- Ez dira danak or amaitzen: 34 orrialdean, 1053'garren urteko billera bat gogora dakar esanez "omnium seniorum de Vizcaya". Baña esaera au latin utsa da; latíñez orrela esaten da.

- Eta, historian zear aurrera joanez, zer?

- Liburuaren 35 eta 36 orrialdeetan, 1644'garren urteko berriak, "señorio" diño eta arrezkero Señorio izan da.

- Bai, baña lenengo bi ene'gaz esan dozu idatzi ebela...

- Orixen da oiturarik zaarrena: Egea de los Caballeros deritzan baskon aldeko errian, izan ziran Erromatarrek ooretutako gudari batzuek eta aien artean bazan Enneko Enneko nis bat (Eñeko Eñekoren semea)...

- Erromatarren garaikoa ba'da ez da gaztea...

- Bi milla urte gertu izango ditu izen orrek eta Loiola'ko Ignazio'ri be izen ori ipiñi eutsoen eta Eñeko'tik atera eben Iñigo, biguñago...

### Evangelium Vitae

- Aita Santuaren biziaren aldeko enziklika bat da "Evangelium Vitae".

- Bai, asko entzun dot berba ori komunikabieetan.

- Aita Santu eta Setien'en idatziek altaboz ugari daukie edonun.

- Ez gutxi eta Aita Santua atzerako doiala diñue.

- Ez dira falta, enziklika irakurri barik, berbak arrapaladan egiten dabezenak.

- Irakurriko eben, berba egin aurretik, gizona...

- Eleberri baten, edo pelikula baten epairik ez dau iñork emongo, eleberria irakurri edo pelikula ikusi barik.

- Aurpegi aundia bearko leukie ori egiteko.

- Berdin da beeratu ala goratu, Ian ori egiteko oñarrizkoa da irakurtzea; ogi-bidea ortik dabenak, areago eta geiago.

Baña, Aita Santua izan arren, edonork dau kritika bat egiteko eskubidea...

Bai, ez ordea, izen-burua irakurrita bakarririk. Ez dau iñork be esaten zer berba kupigarria esaten deutesen aurr naita galdu daben ameri... Samintasunez eta bizi-inguru larriak eraginda artzen diran erabakiak direla... Aita Jainkoaren biotza eraginda dagoela, zabalik, barkamena emoteko eta laguntzeko...



### Pilato alargunaren ezkontza

- Jesus, Jesus, emen entzun bear diranak.

- Zertzuk?

- Jesus Magdalena'kin ezkondu zala ez deust ba aldameneko Jerontxio'k esan...

- Ori Beizama'ko sakristauaren kontua bezela izango dok.

- Zer kontu?

- Beizama'ko musulari ona zan baita bertsolaria be.

- Eta, zer gertatu jakon?

- Jai arratsalde aretan, musean egin ondoren, jo ebazan bezperatako kanpaiak.

- Eta?

- Erretorea Errosario santua errezatzen bi garren misterioan dagoela, sartu zan atzeko atetik Errotxikiko maiorazgoa deadarez aita egoala il-zorian eta etorteko erretorea lenbailen.

- Formalidade eskasa elizan izateko.

- Jetxi zan pulpitotik abadea eta esan eutson sakristauari segitzeko errosarioari aurrera. Ikullutik zaldia atara eta, tximistak arturik, jo eban Errotatxiki'ra. Gauzak uste baño luzeago izan ziran...

- Eta, sakristauak?

- Errosarioko amabost misterioak amaitu ondoren, bersolari ona izanik, jarraitu eban misterioak asmatzen.

- Asmatuko ebazan asmatzekoak!

- Abadea elizan sartu zanean, orduantxe egoan berrogeita bosgarren misterioan: Pilatos'en alarguna Nikodemo'kin ezkondu zanekoa...

- Ez eukan irudimen gitxi...

- Zuen aldameneko Jerontxio'k aiñakoa.



### Luis de Lezama, abadea eta taberneroa

- Noiztik da tabernero abade ori?

- Orain ogei urte ezkeroz.

- Eta, nungoa da?

- Amurriotarra, eta Amurrio, Araba izan arren, benetan Bilbao'ko auzo bat besterik ez da.

- Eta, nolan egin zan tabernero?

- Aurretik abade, Madrid'en egin eben eta an lan egin dau. "Periodismoa" ere ikasi eban, Telebistan eta Irratian lan egiteko.

- Eta, Ian orretan ebilli ta gero, tabernero sartu zan?

- Elizatxo bat be baeukan eta langabeko mutillai laguntzen saiatu zan, baita bada ez badako beste gazteai be. Kargu geiagotan be Ian egiten eban Madrid'eko Gotzaitegian, eta guztiak bertan bera lagatzeko erabakia artu eban.

- Baña, zer san eutson gotzaiak?

- Berak onela kontaten dau orduko bere egoera: - Joan nintzan gotzaiarengana, Tarancon jaunarengana, eta jo neban atea:



- Aurrera, erantzun eustan kardenalak. Iriki neban atea eta an zegoen bere despatxuko mai-atzean eserita. Ikusi nin-duenean, jaiki eta nere bidera etorri zan:

- Kaixo, Koldo. Zer moduz zagoz?
- Ondo, erantzun neutson burua naiko naasturik.
- Urduri xamar ikusten zaitut.
- Alaxen nago, jauna. Erabaki zeatz bat artun bear dot.
- Zeuk esan.
- Ara, jauna, emengo lan eta ardura guztiak laga nai dodaz: Gotzategikoak, Seminarioko irakasketak, irrati-koak... danak.

Kardenalak zirkiñik be ez. Bat-batean onela eraso eustan:

- Baña, nundik bizi bear dok? Zer egin bear dok?
- Zalantzan egon nintzan apur batean; gero, arrapaladan:
- Taberneru izan nai dot.
- Ezta makala abade ori!
- Orreelan asi eban benetako abentura bat abade onek.

Bere parroko gazteai lanpostuak ataratzeko; eta eurokin batera jaso eban La Taberna de los Alabarderos, Erregeen Jauregiko Oriente Plaza inguruan, Madrid'en.

- Alako bada ez badako jendeakin aurrera jo dau?
- Gazteak pozik, euren lana ikusita eta erokin batera beste Taberna de los Alabarderos bar eraiki eban.
- Arraiva!
- Gero Sevilla'n Hosteleria-eskola bat.
- Ori be bai?
- Gañera Madrid'en Café Oriente izeneko beste bat eta andik Washington'era... Beti alako gazteen billa, bere lantegietan lana emateko. Batzuek, ofizioa ondo ikasita gero, here kasa asi dira lanean eta ederto egiten dabe lana, gu guz-tion pozgarri...
- Arraiña emon bearrean, arrantzan erakutsi.
- Ba, orixe. Liburua be argitara dau: "Historias y Recetas de mi Taberna".
- Ez dok ori iñor..!

**Goi-maitasun Jakinduria**

(Erriko andratxo bateri)  
 Erri arlotean  
 arlote,  
 ez dezu aberastasunik  
 ez dote,  
 ez zera letragaian  
 dotore...  
 Ene andratxo Maria  
 nundik  
 sortu dozu  
 jakinduria?  
 Ez-jakiña izanik  
 jakinduria dozu gañezka  
 gogotik.  
 Jainko eldueziñaren berri  
 nork emon dotzu zuri?  
 Ez maixu  
 ez teologorik  
 zuk dakizunik  
 ez daki.  
 Nundik  
 ikasi dozu ikasi  
 Jainkoarekiko



ainbat berri?  
 Ez zera ez azti  
 eta ez sorgin.  
 Maite dozu Jauna  
 biotzetik.  
 Aretzek egiten deutsu  
 argi.



**Erleak eta udaberria**

- Udaberriarekin batera ugaritzen diraz lorak eta erleak.
- Lenago ez erlauntzagabeko etxerik.
- Bai, ba; erleak argizaria emoten dau eta orduko elizetako sepulturetan argizari bildumak ipintzen ziran difuntuen alde.
- Illerietara joaten ziran kandelak biztera, ala?
- Illerria elizan bertan egoan eta etxe bakoitzan eukan bere sepultura.

- Eta. orain?
- Orain ezer be ez; eliza geienetan kendu dabez lengo sepultura guztiak: benetakoak izan ziranak eta gero elizkizunak euron gañean egiten ziranak.
- Zer elizkizun?
- Ildakoentzat argizariak biztu, ofrendak egin eta erresponsoak atara.
- Eta, Ian ori nok egiten eban?
- Etxekoandreak. Sepultura gañeko abadea bera zan. Len, Carlos III'garrenak kendu ebazan benetako sepulturak eleizetatik, eta aizkeneko urte auetan, abadeek kendu dabez beste sepultura onek, bankuak ipinteko. Benetako oitura zaarrak oraintxen amaitu dira.
- Izan be, an iñor ez ba'dago, zertarako?
- Orain be, azpiko zola kentzen ba'dozu elizetan, an agertzen dira geure aurrekoen gorpuzkiak... Lurperatzeak etenda egozan, baña, elcizetako oiturak, ez; oraindik be jarraitzen eben. Eta ildakoei argia eskeintzea zan oitura bat.
- Ala ba'zan, erleak bearrezkoak ziran haserrietan argizaria lortzeko.
- Erleak oso etxeoak ziran eta etxejojaunaren iltzearen berri be, emoten eutsen.
- Zergaitik?
- Argizari geiago egiteko eskatzen eutsen eta etxeo erlauntzik erladi batek aide egiten ba'eban, etxearentzat seiñale txarra.
- Eta, erladi ori topaten ebanak?
- Arbola baten kokatzen ba'zan eta iñork topa, aizkora-gaz gurutze bat egitea naikoa zan, erladi ori beste iñork ez jasotzeko.
- Zergaitik ez?
- Guztiak onartutako oitura bat zalako eta gure artean oitura zan lege.
- Gaur ez, beintzat...
- Gaur alderantziz egiten da: lenengoa legea ipiñi eta gero lege ortara makurtu eta oitu. Leenago erriak here oiturez egiten eban danentzako legea. Ori zan benetako Demokrazia...
- Lenagoko lege zaarrak amaitu dira.
- Berriak obeak ba'lira...!

**BARTOLO ARROPAINGO**

## LAUAXETA'REN AZKEN IDAZKIAK (eta III)

Gogo-barruan biztuta daroat nik  
barru bero iziotuaren argi ederra;  
bizia baiño askatasuna dot maiteago  
eta ez nintzan jaio buru-makur ibilteko.

Orregaitik nago emen bakarrik arro eta sendo  
bare-bare itxaroten dot zure utsa,  
zuk ni iltea erabagi al ba'dozu,  
ezin izango daustazu iñoz gogo orbandu.

Zauritu nagizu! Nik espetxe gogorrean  
nire izenaren zintzotasuna dot pozbide.  
Zer ardura dau egunaren argia ez ikusteak  
nire barruan zeruko argia ba'dot?

Zer ardura dau orma eta kizket artean  
zuk niri eguzkiaren argia ta askatasuna kentzeak  
nire begiak argitasun zerutarra dakusenean  
.....

**OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua**

### ZUBILLAGA'rentzat

"Gizon bizartsua eta ondo gertatua (?)"

Bizar onek estaldu eban bere eunetan  
alboz nire aurpegia baretasun osoan;  
bere ekaitzakaz geiago beteten nauan itxasoak  
olatu baltzean nire gomutapenak uguzten dauz.  
Bere begirapenak kalte dagio toki geldi bateri.  
Bere samintasuna iñoz bideratu ezin dauanean,  
baretasun zabala dauan kopet argia  
illundu egiten da gogapenaren kiñu gogorraz.  
Orrelan geratu zan marratuta nire irudia  
espetxe illun baten bazterrean,  
azkena, giza-fede sendoaz, itxaroten dauan artean.  
"Gizon bizartsua" ez zaitu arrituko  
eguzkigabeko bularra izatera doanean  
lagunarentzat ezti-lorea zaintzen dauala.

Karlos adiskide: txerrenak... ez daukanean...

**OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua**



**ZUBILLAGA'tar Karlos'entzat (52n. gelan)**

### Adiskide:

Nire bizitzari ordu gitxi geratzen jakozela uste dot, eta  
nigaz izan dozuzan arreta guztiai esker ona agertu barik  
geratzea ez dot nai. Biotz osoaz eskerrak damotsudaz eta  
ordain lez or izten dautzut Santamaria legelariaren bidez,  
urrezko idazkortz bat. Orixe baiño besterik ezer ez jat  
geratzen. Ori izango da dautsuduan maitasunaren ezauga-  
rri. Bilbao'ra eltzen zaranean, besarkada bat emon egiezu  
Enrike'ri ta Ebaristo'ri. Esan guztiai ni abertzalea izan  
nintzala eta azkenean kristiñau euskaldun lez ilten jakin  
nebala.

Nire ezpanetan azkenengo berbea Jesus izango da.  
Zeruan naukazue itxaroten. Egun baten zoaz Mungia'ra  
eta mosu bana emon egiezu nire gurasoai. Au be nai dot:  
Enrike'k anai lez begiratu eta artu dagiala Pagaldai'tar  
Julio, besarkadea emon dagiola Garadi'tar Iñaki'ri. Ez  
egizue iñoz itzi kristiñau eta abertzale izatea. Besarkada  
aundi bat zure anaiari eta Garbizu'ri.

Betikoatasunera arte benetan agurtzen zaitue.

**URKIAGA'tar Esteban'ek  
OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua**



Lauaxeta 1937'ko bagillaren 25'ean su-izkillutu eben goizeko 5 1/2'etan.

Idazki oneik idazki jatorrai egin jakezan aldakien alda-kiak dira.

**B.B.B.'ren LENDAKARIARI**

**Nire adiskide maitea:**

Bizitzaren ordu gitxi baiño ez jataz geratzen eta nire itxaropena dan Kristo'ren aurrean zure esaneko izatea zin egin eta Euzkadi'n dodan nire fedea aldarrikatu nai dot.

Ez izan bildurrik zuen gorputza il al dauanari, zuen gogoia il al dauanari baiño.

Nire Euskalerrria fededun izan daitela, Barri Ona'ren bidea jarraitu dagiala. Ni zorionsua naz Jesus eta Euzka-di sinisten dodazala ilten nazalako.

Gure erria Jaungoikoak maitatua da eta orregaitik daroaz ainbeste neke. Saria aundia izango da. Dana itxa-ron egizue Jaungoikoagandik eta beragan izan sute ona.

Besarkada bat emakumeai eta abertzaleai.

Jaungoikoagan itxaroten naukazue.

**URKIAGA'tar Esteban  
OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua**

**"LAUAXETA" zanaren azken-olerkiak**

**I OLERKIA**

Eguna berantza doa,  
nerekin gel zaite arratz begi da-ta  
Itzal baten goxoz urdintzen doia-ta

Ene Josu maite  
gel zaite.

Nere egun argia berantz doa;  
Itzalak joten dau atadi ondoa

Arratz onen otza  
biotza!

Oi bidazti deuna, sar zaite neurera,  
Bertan doten bada maitasun arrera

Bekidot bizitza  
Zeure itza.

Idazki doneak azaldu daidazuz  
Euren moin eztiak emon egiztazuz

Bel zeure mintzoa  
Goxoa

Ta barne guztia berotan dodala  
Argi biur bekit eriotz itzala

Dana jat atsegin  
Zeurekin.

Orain sakon dakust zeure eriotz ori;  
Zergaitik daukazun biotz deuna gori.

**II OLERKIA**

- 1.- Agur Euzkadi. Jaunak naroa  
Aberri eder sargira (?);  
neure negarrak (?) jarion nauzan  
zeure mendiai begira.
- 2.- Seme bat zeukan baiña etsaiak  
kendu eutsoen biotza  
Soin ederrera isuri jakon  
maietz bateko goiz otsa.
- 3.- Gurutz deunari mosu egiñaz  
alde egin eutson mundutik  
Kistoren gentza abo-gaiñean  
berotu (?) jakon gaztetik.
- 4.- Jaunaren maitez, aberri maitez  
ez eban euki bildurrik,  
eta zuretzat zorion utsa  
opaldu eutsun gogotik.
- 5.- Euzkadi ona zagoz betiko  
Kistoren fede betean;  
olan zorunean billauko dozu  
emen ezpada zeruan.
- 6 Eriotz deuna aurrean daukot,  
sinistu bada euskoa.  
Euzkadi azke izan daitean  
zaindu Josu'ren legea.
- 7.- Eder jatazan zeruko bazterrak  
eder itxaso zabala  
baiña oraintxe ederrago jat  
eriotz onen itzala.



**BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ**

## BETIRAKO IPUIÑAK

(4n. SARIA)

### DOMU SANTU

Helen Bigest irurogei urterantza doan emakume alargun bat dogu. Antzik izan ez arren, ondo jagoten da-eta.

Umeentzako ipuiñak idazten dituan idazle ospetsu bat ere bada, eta here liburu barri baten aurkezpena dala-ta, New York-en dago berbaldi bat emoten.

Ikusleen artean; editorak, liburuen negozio munduan murgilduta ainbat ejekutibo eta idazlearen jarraitzaille batzuk aurkitzen dira. Berbaldia amaitu dau eta berrogei urte inguruko emakume bat urreratu jako:

- Kaixo. Helen Bigest anderea. Nire semetxoak zuk idatzitako liburu guztiak daukaz etxean eta azken au eskeiñiko dautsagu, zuk zeuk pertsonalki geure etxera etorrira? Bera gaixorik dago eta ezin izan da emen egon, bestela pozik etorriko zan.

Helen. adi geratu jako emakumerari eta auxe erantzun dautso:

- Ez dakit anderea, neure errepresentanteagaz kontsultatu bear dot, arratsaldeko bederatzietako egazkiñean joatekotan nago Los Angeles'era eta, denbora'rekin justu samar ibiliko naiz.

Helen'ek errerepresentatea'ri itaundu dautso, eta onek buruarekin ezetz egiten ebala ikusi dau emakumeak.

Helen'ek azkenik:

- Ez, ezin dot, egazkiña artu bearrean nago eta eziñezkoa jat.

Orduan andereak:

- Mesedez, Helen Bigest anderea, emendik urbil bizi naiz eta neure etxera sartu-urten bat egin ezkeronaikoa izango litzateke. Gure Alan txikia oso gaixorik dago eta egiozu mesedetxo ori.

- Ea ba, ondo dago, emango al daustazu elbidea?

- Bai; "East Harlem Avenue", 10. zenbakia.

- Aztu baiño leenago, zein da zure izena?

- Carol Hackman daukot izena, Helen anderea.

- Ederto!, 7'terdietan pasatuko naiz zure etxetik, azkar ibilli ezkerona uste dot arrapatuko dodala bederatzietako egazkiña.

Helen'ek ez eban ezertariko pegarik izan, Hack-

man sendiaren etxea aurkitzeko, bereala aurkitu eban, eta txirriña jo orduko, Carol'ek ireki eutson ate.

- Kaixo Bigest anderea! Eskerrik asko etortzearen.

- Kaixo! zuri ere Carol, eta mesedez dei nazazu Helen soillik, orrenbesterako lagunak bagara-ta.

- Sartu barrura, ementxe dago Alan txikia.

Helen sartu zan Alan txikiaren gelara, eta an zegoen zortzi urteko mutikotxu bat, tuboz beterik eta berbarik egiten ez ebala.

Helen arritu egin zan asieran baiña gero apurka-apurka berba egiten asi jakon mutikoari.

- Kaixo Alan! Liburutxo bat ekarri dautsut. "Oianeko biztanleak" titulatzan da eta gaiñera, zuretzat dedikatoria bat ipiñi dot: "Alan Hackman, irakurle fiñari biotz-biotzez, Helen Bigest'ek".

- Entzuten al nau? Itaunduten dautso Helen'ek Carol' eri.

Eta Carol'ek:

- Medikuek ezin dala jakin egoera katatoniko baten dagoan pertsonak entzun leikean ala ez esan dauste, baiña nik uste dot entzuten dauela.

Helen'ek ipuiña irakurri eutson astiro-astiro, eta ikusten eban Alan'en begiek dizdira bat jaurtitzan ebela. Bazekian bere biotzean, ipuiña entzuteko gai zala.

Ipuña irakurtzea bukatu eban Helen'ek, eta agurtu aurretik, Alan'eri musu bat emonaz zutundu egin zan.

- Ederto Carol!, joan-bearra daukot, gustu aundia izan dot ona etortzean eta itxaroten dot Alan sendatuko dala noiz-bait. Orduan itzuliko naiz barrira, beste ikustalditxo bat egitera.

Carol'ek begietan negarra eukola, zera igorri eutson Helen'i:

- Helen, osagilleek ez dauela luzarorako bizirik baiezatu dabe aste onetan. Nik ez dot uste Alan'ek il bear dauanik, ain txikia da oraindik!

Helen atsekabe aundiz agurtu zan Carol Hackman andereaz, asko sentitzen dauela esanaz.

Bost ordutako bidaia egin ostean, Helen nekaturik iritsi da Los Angeles'en daukon bere etxera. Leku

bakarti eta baketsu baten aurkitzen da bere etxea, argitsu eta ondo zaindurik daukozala etxe-aurreko lorategia eta etxe-inguruan daukozan apainkiak eta bestelako gauza dotoreak.

Kafe bat artzen dagoala sutondoan, liburu bat irakurtzen, zaratatxo bat entzun dau beeko egongelan, baiña ez dautso aparteko arretarik eskaiñi.

Andik gutxira barriro, barre batzuk entzun ditu eta jarraian oiñ-otsak.

Barreak umeenak zirala emon dautso antza. Zutundu da eta etxeko batea ipiñiz, or doa eskillaratan beera.

- Nor dabil or?

Iñork ez eban erantzuten. Alako batean kristalotsa sukaldean. Begiratzera joan da eta beisbol'eko pelota bat ikusi dau sukaldearen erdi-erdian.

- Nor ibili daiteke gaueko ordu oneitan beisbol'era jolasten? Ene Jesus, ume barrabanok!

Bere gelara doala, len irakurten egondako liburua barriro irakurteko asmoz, gauza bategaz konturatzen da.

Beko egon-gelan dagoan "sofa" edo besa-aulki gaiñean, bere liburuetariko bat dagoala.

- Ene!, nola utzi dot liburu au? Zartzaroa izango da.

Uste dau here baitan, gauzak aazten ari jakozalata. Artu dau liburua eta, "Oianeko biztanleak" zeritxon liburua zan. Esku-tartean dabilkiola ireki eta, ene!, bere arridurarako, Alan Hackman'eri goizean oparitu dautson liburua.

Argi ta garbi ageri dira berak ordu batzuk leenago idatzitako itzak, Alan'i liburutxoia dedikatuz, liburuaren lenengo orrian.

Helen'ek bi bider pentsatu barik artu dau urrutizkiñ-gida eta Hackman'darren urrutizkiñ zenbakia billatzen asi da.

Laister aurkitu ostean, deitu eta, Carol agertu jako urrutizkiñaren bestekaldean.

- Barkatu Carol gaueko ordu oneitan deitzearren, baiña Alan nire etxean aurkitzen dala uste dot. Goizean berari eskaiñi eta oparitutako liburutxoia zelan

agertu da bestela nire egon-gelako aulkian?

Carol'ek negar sotinka:

il - Ori eziñezkoa da Helen, Alan gaur goizean da-ta.

Arriduraz beterik, asko sentitzen dot, esan dau aots dardartiaz Helen'ek, begietatik negar malko isil ta garratzak darioezala.

- Ez dauko garrantzirik Carol, neure txarto ulertze bat izan da. Agur.

Helen'ek urrutizkiña eskegi eta dagoan lekutik barre batzuk entzuten ditu.

Umeen barreak dira. Bere liburua eskuetan daukola, egon-gelara urreratzen da eta gelaren erdian, Alan'en irudi bat ikusten dau. Irudia oso dizdiratsua da eta pentsa leike airean dabillega.

Alan'en alboan ume asko dagoz beean jesarrita.

- Helen Bigest anderea, diño Alan'ek, kontatuko al zeniguke ipuiñ bat mesedez?

- Mesedez, mesedez, Bigest anderea, errepikatzen dabe beste ume guztiek, kontatu ipuintxo bat.

Helen Bigest patxadatsu jesartzen da besaulkian eta:

- Bai ume lastanok, kontauko dautsuet ipuiñ bat, erantzuten dau pozezko irrifarre bategaz aurpegia piztuten jakola. Eta ez gaur bakarrik, nai izanez gero gauero kontatuko dautsuet ipuiñ bat, ene ume kuttinok.

Helen Bigest'en egon-gelan gauero biltzen ziran umetxoak ipuiñ bat kontatu dagitsen.

Eguno ere ez eutson Helen'ek egun aretan zer jaso zan iñori kontatu, are gutxiago gauero nola biltzen ziran bere egon-gelan difuntu egozan aurtxoak, zoro-etxe batera eroango ebela uste ebalako.

Baiña berak ondo ekian, bere ipuiñak ume aien arimak betirako bizirik mantentzeko gai zirala. Betirako ipuiñak zirala.

ASIER LEGARRETA

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

---

# TXORDO

---

Indar andiko gizon mozkote, Pelotari trebe, arin-aringa bizkorrena, Kardantxillo kumetan onena, lagun arteko tanboliña, eta erri guztiak maite eban gizona izan zan Txordo. Ez eban eskolarik ikasi, baiña ala ta guztiz be, ez eutsan iñok adarrrik joko edo burlarik egingo.

Oituta egoan erriko "Argibel" batzuen zirikadei aurrera egiten. Baekian zirikalari bakotzari zelan erantzun, eta laster ipiniko ebazan gauzak bere tokian bere urteera zorrotz eta ez tentsuagaz.

Gauza gitxigaz poztuten zan gizona zan. Bere ogibidea kale-garbitzaillea zan, baiña guztiz zoriontsua zan bere eginkizunagaz.

Ikaragarritzko bildurra eutsan itxasoari, naiz urte batzuetan itxasoan ibili.

Berak esaten eban, bera legorreko Oilloa zala, eta ez itxaso'ko patxa edo aatea.

Baita be esaten eban, naiago ebalá Errente'riko korta batean, ganadu artean lo egin, itxasoan kamañarik ederrenean baiño.

Orretxegaitik, Udlak kale-garbitzaille langintza emon eutsonean, lenengo egunean bertan korreta barrira joan zan eta erratza eskuetan artuz, itxasoari begira jarri, eta bedeinkaziñoia bota eutsan itz onetxeik esanez. Lenegotik be gorrotoa neutson baiñe... aunte bai geixa ez nazule atrapako!

Jatun andia zan, eta bere gazte denporan, "amaiña" pasatakoa zala esaten eban. Baita gerra denporako eta gerra osteko urteetan be txarto ibili zala, orretxegaitik, gauzak baretu ziranean be sarritan gogoratzen ebazan here gose egunak.

Jatun andia zan izatez, baiña jangartzua gauza batzugaz.

Urteroko gabon afarian, (beste gauzen artean) sei maskulo txikienak jaten ebazan bakarrik.

Batita be esaten eban, naiago ebazala txitxarro kumeak ardauagaz bildotsa ugaraz baiño.

Bere izen-abizenak onetxeik ziran: Felipe Kaltza-

korta Imaz; baiña deitura orrekin ez eban iñok eza-gutzen. Gaur bertan, adiñekoen artean itaunduta be, ez leukie argitasunik emongo, baiña Txordogaitik itauntzen badozu erri osoak esango deutsu nor izan zan.

Jatun andia zala diñot eta ialaxe zan!

Itxasoan ibili zan bitartean, urtero bere lagun Jose Toxu'gaz joaten zan atunetara. Orduan ez egoan oraingo aurkerarik. Ez egoan ez oillaskorik, ez okelarik eta ez etxetik ezer eroaterik. Tomate kaja bat, ardaú zaragi bat, patata apur bat eta kipula pilloa eroaten eben txalupak atunetara. Eurak arrapatzen eben atunagaz marmitakoa egin (atze parteagaz) eta beste guztia ojaelean erre. iAtun tato ederrik jandako gizonik ba-zan gure errian!

Urte batean atunetarako sasoia eldu zanean, bere lagunak, Jose Aramaionean pixatu eben itxasoratu aurretik. Zazpi egun eginda etxeratu ziranean, barriror pixatu eben toki eta pixu bardiñean, eta zazpi kilo gaiago pixatu ebazan: egunean kilo bat. iEz ekuan orduan gaixo andirik!

Gazte denporan Astilleroan Ontzigitzan lana egin-dakoa zan, eta zer esanik eztago goizeko gosaria oiñazpira laster joaten jakola: bazkal orduaren zain artega egoten zala.

Egun batean lanteik joiala, Goko-Kale erdian egoan "Klara Antxubixa'neko" denda aurretik lapiko errearen usaiña artu eban eta zarataka asi. i Geure etxeko lapikoa da!

Eldu zan etxera eta indaba lapikoa sutan, kixkaltzen billatu eban. Artu lapikoa egoan modura etabal-kotik, Errofall Toba'ren ortura jaurti. Atara eban gordeta eukan zidarrezko peseta bikoa eta bere arreba Teresa bialdu Klara'n dendara esanez: iEkarri dozena bat Arrautza!

Arreba'k ekarri eutsazanean, berak sei jan ebazan, eta amarentzat eta arrearentzat iruna laga. Orixe izan zan egun artako Txordo'n bazkaria.

Gerra urrean zala-ta... Ondarru'n jenda urduri egoan aspalditik.

Gau batean, (Reketeak sartu aurretik) Goiko Txurruko eskilletan zarata entzun eban. Oetik jaiki eta leiotik begira egoala, "ara nun" ikusten daben Patxi Galdakano arin-aringa. i Ze pasaten da? Itandu eutsan Txordo'k eta... iEmen ei datoz! Galdakano'k erantzun.

Ori entzun ebanean, Zezilio Serrero'neko Oillote-giko ate-sarean nastauta, enpatxata geratu zan eta ezin iñundik askatu.

Askatu zanean, barrero be arin-aringa, Burgo'neko Pifiadian gora, goiko biderarte arnasa batean joan zan eta antxe geratu atsedean txiki bat egiten.

Illunaren erdian, Arrigorriaga'ra begiratzen eban baiña an ez zan iñor ageri.

Buruaste andia emon eutson gertaera orrek. i Guzurre esan etae deusta Galdakano'k? Oraindik eztagoz bistan; ez dira ageri. Gaiñera... Zer egin bear dot janari barik? iEtxera jatsiko naiz zeozer

Esan eta egiñ. Jatsi zan etxera eta bertan billatu eban txokolate ontza bat eta dindilizka egoan makallua artu ta, kanpora barrero.

Bide zarretik gora asi zan eta gau guztian arin, Lekeitiora eldu arte. Emen egun batzuk egin ondoren, Plentzi eta Barrika inguruko mendietara eroan eban lubagan edo trintxerak egitera, eta antxe igaro eban urte artako negua.

Lubaganak egiten ebizala, egun batean libre egozala-ta... Bilbora jetsi ziran bera ta beste erritar bat, eta pixu bat ikusi ebanean, Txordo bertan pixatu zan.

Erritarrak ikusi naian, kuartel batera urreratu ziran eta ainbeste erritar agurtu ondoren, bertan geratu bazkaltzen.

Janetik urri ibili arren, kuartel artan Felix Mariñela egoan sukaldari eta Txordo ondo ezagutzen ebalako, naibeste arroz egosi eta lebatzkume brikitu emon eutsoezen jaten. Ur pillo bat edan (ez eukien ardaurik) eta barrero kaleratu ziranean, aurretik paxitutako pixura joan zan eta kilo bi geieago pixatu ebazan: orrexegaitik, beretzako jatekorik astunena arroza zala esaten eban.

Bilbo Reketeak artu aurretik, gazteak oraindik mendian egozan baiña adiñeko gizonak euren txalopetan bizi ziran Santurtzi'n.

Denpora ona egoanean, adiñekoek "goazen am-

kak ibiltera" esan eta kanpora, mendi aldera urteten eban.

Egun batean bost erritarrek urten eban euren ibilaldia egitera. Denpora ederra be ba-egoala-ta... eurak uste eban baiño urrutirago joan ziran.

Kontu-kontari ziarduela, "ona nun" agertzen dan egazkin bat.

Bost Ondarrutarrok asi ziran arin-aringa eta baserri zar baten atzean ostendu.

Baiña danak ez ziran leku bardiñera joan. Txordo aide batean geratu zan eta beste laurak (Tomas Santa Kutz, Angel Danbala, Bixente Apallu, eta Simeon Akulu) beste aldean.

Egazkiña asi zan bere lergailuak uztutzen eta onetako batek, eurak egozan baserri zarra jo, eta eztanda egin eban. Baserri'ko orma'k eta tellatu osoa aide batera jausi ziran; Txordo egoan alderdia zutiñik geratu.

Eztanda'k eta orma zarraren jausteak atara eban keia eta autsa ikusi ebanean, "areik ilde daz" esan eban eta arin-aringa asi zan Santurtzi'rako bidea artuz.

Izerdi patsetan, arnasa estuka joiala, eztanda gerta zan lekutik bi edo iru kilometro berago gizon bategaz topo egin eban, eta onek Txordo'n atarramendua ikusi ebanean didarka asi jakon: Oye, Basko. i Que pasa? Eta Txordo'k arinketari laga barik onela erantzun. i Qué pasa? iNada no pasa! "Sinco hombre habio cuatro murio! eta segi bere bidean.

Beste zati bat arin-aringa egin ebanean, orra nun aurkiten dituan berak "ilda" egozala uste ebazanak. Guztiak egozan, baiña eurretari bat (Apallu) buru guztia andituta.

Gixonak, -diñotse Txordo'k- danok il ziñelakoan eta, zelan eldu zarie ona? Ze gertatu jako orri?

Zelan etorri garean? Andik igesita getozala, bidean etorren kotxe batek artu gaitu eta ementxe laga. Onei oster, baserria jausi danean bertan egoan erlauntz bateko erleak zoratuta lez urten dabe eta danak bere buruaren gaiñean eztenkadaka asi jakoz. Begira zelako burua geratu jakon. Kalabaza bat dirudi!

Artu eban Santurtzi'rako bidea eta bakoitza bere txalopara joan. Orixe izan zan arratsalde artako ibilaldia.

## KONTU-KONTARI

Lagun-Arte entzutetsua zan Txordorena. ERA guztietakoak egozan: Kantariak, bertsolariak, dantzariak eta abar.

Pako Akulu eta Praixko Exkerra kantariak ziran, eta Jose Toxu kantaria eta bertsolaria: Pedro Jose Ixkiri eta Oiularia; baiña danak kantatzen eben ondo.

Aldi artako bere lagunak onetxeik ziran: (ez dot abizenik ipiñiko).

Pako akulu. Jose Toxu. Pedro Jose Ixkiri, Praixko Exkerra. Daniel Totu, Modesto Trotixe, Tomas Santakutz, Iñazio Santakutz, Melitxon Papardo, Jose Mari Garbantzero. eta beste batzuk. Txordo'n etxeko ez-izena Ankamotz zan.

Isasi'neko ardandegian egiten ebezen euren parranda txikiak, eta entzutekoak izaten ziran ango kantuak eta bertsoak.

Txordo'k here lagun Ixkiri'gaz eukiten ebazan eztabaidarik andienak. Ixkiri gizon ona zala esaten eban baiña "tomoso andixe", benetako egozkorra.

Egun bateau alkar zirikatzen ziarduela, Txordo'k auxe esan eutsan Ixkiri'ri. Zu tonto alua zara! Ni ton-tua? Bai! Zuk eztatixu iru uno zelako nurneroa dan!

Estu eta larri geratu zan Ixkiri. Egia esan, ez ekian iru uno zer numero zan eta Txordo'ri be ziur asko besteen batek esango eutson.

Dana-dala. Lagun guztiak barrez joiazan kalean zear eta "Banco de Vizcaya'ko" eskillarak igoten ziarduela, Ixkiri Praixko Kurtiñaz'engana urreratu zan eta onek belarrira zeozer esan eutson.

Txordo segiduan konturatu zan zer izan zeikean baiña lagunekin jarraitu eban "Club Deportivo'ra eldu arte.

Ona eldu ziranean barriro asi ziran euren lengo jarduncan, eta alako batean ba-diñotso Ixkiri'k Txordo'ri. Txo! Nik eztatitela? Esan ontxe? Eta Txordo'k barriro: ez, zuk eztatixu! Esan ba. esan ba, diñotso Ixkiri'k! Txordo'k orduan auxe itandu eutsan: Zenbat dira iru dos? Eta Ixkiri'k bere indar guztiagaz onela erantzun: "Siento Ontze".

Txordo maltzurra! Ikusi egin eban Praixko Kurtiñaz'ek belarrira zeozer esaten Ixkiri'ri. Susmoa artu. Orretxegaitik itandu eutsan, baiña ez iru uno zenbat ziran iru doz baiño, eta Ixkiri'k federik onenagaz erantzun entson "Siento Ontze".

Beste batean, (Gerra denporan) Bilbo galdu zanean etxeratu egin ziran gizon asko, batez be adiñean aurrera joiazanak. Beste askoren artean Txordo eta Ixkiri be erriratu egin ziran.

Denpora artan, Errofall Tobaren Kafea'n komitea ipiñita egoan kanpotik etozenei "deklarazioa" artze-ko, eta bertatik igaro bear izaten eben "gorrixetatik" etozan guztiak.

Komite artan, erriko seme karlista batzuen artean, kanpoko gizon bat egoten zan mai-buruan guztien agintari moduan: Mendiolea izeneko bat.

Beste askori lez, Txordo'ri be komitera joateko ordua eldu jakon eta egun batean, Errofall'en kafera joan zan.

Maian egozan gizonen aurrera aurkeztu zanean, besteei egiten eutsen moduan itaunka asi jakozan.

Oye Txordo. ¿Tú qué eres?

Nasionalista sin peligro.

Afiliado?

!Si Señor!

Txordo here aitormena eginda kanpora joiala "ona nun" agertzen dan Ixkiri gauza bardiña egitera. Txordo'k susmo txarra artu eban eta ate ostean gertau Ixkiri'k zer esaten eban entzuteko bere artean esanez: Onei andri'k esangotzan zer esan bir daben!

Ixkiri'ri be maira urreratu zanean itaunka asi jakozan.

Tn. ¿ ?

iDerecha!

Pero derecha, ¿cómo?

iDerecha!

Pero...

iDerecha!

Pero tn...

iDerecha!

Bai ba. Etxean orixe esateko esan eutsoen eta arek eragin beti gauza bati.

Orrela ebizala, ate ostean entzuten egoan Txordo'k maikoei auxe diñotsoe: Mezclau!

Ori entzun ebenean, dei egin eutsoen Txordo'ri. Urreratzeko maira. Agertzeko zer esan nai eban.

Txordo maira urreratu zanean asi jakozan itaunka. Mezclau! Pero, ¿cómo?

Txordo'k esku bietako atzamarrak alkar joka ipini eta onela erantzun. 6.Este? ¡Cafe con leche!

Barrez asi ziran maian egozanak eta Txordo'ri auxe esan. Está bien, está bien. Vaya Ud. a casa.

Andik egun batzutara eldu jakoen maikoen erabakia: Txordo libre egia esan ebalako, eta Ixkiri'ri ille biko guardia fusillagaz erri barruan.

Itxasora joateari laga aurretik (eta gero be bai) denpora fibre eukanean mendira joaten zan geie-nean. Mendizale amorratua zan aide batetik eta sasoiari Kandantxillo kumeak arrapatzen onena erri-ko txori-zaleen artean.

Baiña ba-zan beste gauza bat mendian egitea atsegin jakona. Zer dan jakin nai? Ba... komunean lagaten dogun erregaloa mendian egitea nai izaten eban. Zergaitik ori? Esaera zarrak diñoan lez, jan asko k... asko, orretxegaitik nai izaten eban mendia.

Arratsalde batean, Itxas-begirari edo Talaxeroa egoan tokira joan zan denpora emotera. Bere antzera beste asko be araxe joaten ziran kontu-kontari denpora emonaz.

Batzarre guztietan beti egoten da nastatzaillea, tretzak nastaten dituan amu okerra, eta talaxan be bardin gertatzen zan.

Bertara joaten ziran gizonen artean, ba-zan bat, Cesareo izenekoa. Bere denporan lan gitxi egindakoa zala esaten eban Txordo'k, baiña burlati andia.

Arratsalde artan kaltzak erantziteko gogoa aeldu jakon Txordo'ri eta "aurraxe nu" esan, eta urten eban lagun artetik arto sail] eder batean sartuaz.

Denpora joan eta Txordo ez zala ageri konturatu zanean (Txordo'k egitekoa eginda etxera jatsi zan) ara nun joaten dan Cesario Txordoren arrasto billa eiza txakur baten moduan.

Artotzan sartu eta billatu eban erregaloa baiña "zurixe" egoala esan eban.

Udazkena be ba-zala-ta, ez-une andia be ba-egoala-ta... Txordoren patrikadetan zuloa edo.. erregalok ez eukala ez arda usaiñik eta ez kolore baltzik.

Albistea erri guztian zabaldu zan eta makiña bat barre egiñ eben Ondarrutarrak.

Baiña laster izan eban erantzuna albistariak.

Txordorentzat Cesario astoa zan: baiña lan gitxi

egindako astoa. Narras ibilten zan astoa. Beretzako, Cesario "asto Zurixe zan".

Egun artatik illarteraiño, Cesario "asto zurixe" ez-izena geratu jakon.

Naigabeak be euki ebazan Txordo'k, eta txapel gorria gazteko agindu eutzenean andiena.

Urte areitan Udaletxeko zerbitzua egiten ebenak (errizaiñak eta kale-garbitzailleak) txapel gorria ibilten eben euren eginkizunetan, baiña Txordo'k bere betiko baltzagaz jarraitzen eban.

Bateon-batek salatu edo... txapel gorria jantzi bear ebala agindu eutson alkateak.

Estutu zan Txordo! Milla bider pentsa bear izan eban bere erabakia.

Txapel gorriagaz ikusten ba-eben gizon saldua zala, traidorea zala esango eutsoen.

Gaiñera, bere barruak ez eutson lagutzen. Bere bitzta guztian abertzalea izan zan; afiliatua. Txapel gorridunak ez ebazan iñoiz be gogoko izan, eta gerra osteko bizimodua eta jokaerea ikusita gero, len baiño gitxiago.

Ba-ekian bere ezetzak ekarriko eutsozan ondorenak. Ba-ekian berari bildurrik eta gorrotorik andiena emoten eutson Itxasoagaz aurkitu bearra eukiko ebala. Bere Osaba Jose Manuel'en antzera itotea be gertatu leitekeala. Baiña gau asko itxartuta, ausnarketak ondo egin eta gero, ezetz, berak ez ebala txapel gorriak jantziko esan eutsan alkateari.

Onek, (alkateak) erabakiaren bari jaso ebanean onela itandu. Ba'-dakizu zer egiten dozun? Bai! Erantzun Txordo'k.

Aldi artan gure erriko alkatea Juan Agirre Madariaga Jauna zan. Emengo Banketxe batean lana egiten eban Gernikarra: Txordo begi onez ikusi eta ondo ezagutzen eban gizona.

Egun batzuk igaro ondoren, alkateak dei egin eta auxe esan eutson. Txordo! Jarraitu zeure lanean lengo modura. Konponduta dago zure arazoa. Ez iñori ezer esan.

Ori entzun ebanean zerua zablada jakon Txordo'ri. Urte txarretan, denpora txarretan bizi giñan eta ez eban orrelakorik itxaroten, baiña alkateren indarrak edo... berak lengoa izaten jarraituko eban txapel gorria jantzi barik. Burua jasota erriko abertzaleen artean.

---

## KONTU-KONTARI

---

Ezkondu barik geratu zan. Mutil-Zar.

Bere lagunen esanetan, ez eban iñoiz andregairik euki eta samea ipiniko eben sekula ez zala andrazko bategaz oeratu.

Baiña berak, andrei buruz azterketa ondo eginda eukan.

Bere reitxian iru andre mota egozan eta onela banatzen ebazan: Arrak, emeak, eta ami-amak.

Bere ama arra zala esaten eban. Arrak, biarginak, langilleak zirala, baiña euren eginkizuna etxetik kanpo egiten ebenak; etxea trabes, azpikoz gora eukiten ebenak. Ez zan andre onen aldekoa!

Ami-amak. Naiz aste guztian ondartzan olgetan ibili, gizona Itxasotik etorrela jakiten ebanean, senarraren errukia eukiteagaitik gaixo plantak, gaixo itxurak egitera oean sartzen ziran andrak, ami-amak zirala esaten eban. Alper andi batzuk zirala. Ez ebazan bere aurrean ikusi nai.

Emeak. Etxetik urten aurretik, bere senarraren gauzak, txapela, jaka, alkondara, prakak, eta gainontzeko jantziak ondo ipiñi arren, senarrak ataditik urtetan ebanerako, sukaldeko leiotillatik kale kantoiari galdu arte begira egoten ziran andrak, onetxeik ziran beretzako emeak. Begi onez ikusten ebazan!

Ezkondu barik geratu zan baiña i ez ume barik!

Bere arreba Teresa'k (anai-arrebak izan ziran bakarrik) bederatzi seme-alaba euki ebazan eta etxe batean alkarregaz bizi ziralako... ume falta andirik ez eban aeuki bere bizitzan! Makina bat lagundu bear izan aeutsan bere arrebari!

Aitagandik jasotako solo eder baten jaubea zan eta antxe artzen ebazan urte guztirako patata, kipula, indaba eta ainbeste ortuari etxerako.

Bere koñatua arrantzalea zan eta etxetik kanpo egon bearra sarritan gertatzen jakon; orretxegaitik, etxean osaba baiño geiago zan. Askotan aitaren tokia artu bear izaten eban.

Maite ebazan bere illobak eta guztiak ikusi ebazan nagusitzen, eta eurretari batzuk ezkondu eta gurasotzen.

Illobak be maite izan eben bera. Azkenengo urtetan anketatik makaldu zan eta Illobak kalera ataraten eben karrotxo batean jesarrita.

Baiña umean azi bitartean larrialdiak eta estutasu-

nak euki ba-ebazan, nagusitu ziranean beste era bateko arazoak sortu jakozan.

Bederatzi Illobetatik bost andrazkoak ziran eta Txordo'k bere arrebeagaz eztabaidaren bat eukiten ebanean, amaren aide egiten eban neskak eta ezin izaten eban erresoirik atara.

Egun batean orrela ebizala, eta ikusirik ama-alabak bere aurka ziarduela, amorru bizian urten eban etxetik etya bere bostin marmarrean lagun batengana urreratu.

Arpegi aserreagaz ikusi ebanean, ¿ze pasaten da? itandu eutsan lagunak, eta berak auxe erantzun: alperrik nabill! Txakur bakarrak ezin leike ezer egin sei katuren kontra! Ulertzen dozu?

Beste batean, bere lanak amaituta etxeratu zanean, sukaldeko maigaiñean plater andi bat bete txarri gibek ikusi eban.

Ze pentsau andia emon eutson, eta andik denpora gitxira arreba agertu zanean itaunka asi jakon.

Teresa: Zeñentzako da!

Juan'entzako!

Dana?

Bai!

Baiñe... dan-dana?

Zer ha! Aste osoa itxasoan eginda datorrenak, ¿eztau merezi ala?

Bai, baiñe.. dan-dana?

Baaaiii, erantzun arrebak.

Ikusi ebanean platereko gibelagaz ez eukala parterik... "ALIRON, ATELETI KANPEON" kantatzen urten eban etxetik.

Jatun andia zan eta janak sakagarria bear izaten dau, eta onegaz be ez zan makala.

Arratsaldeko kale-garbiekta amaitzen ebanean, bere solora osteraga egiten eban ia egunero. Baiña ez eban soloan denpora asko egiten.

Bostak aldean laster anka egiten eban Isasi'neko ardandegira. Antxe batzen ziran Txordo eta lagunak euren "tarteratxoa" aurrean ebela barruko "ille" biztuteko asmoz.

Pratikarak zelan zarata

Txordo'k ala kanta.

Egun guztiak ez dirala bardiñan izaten -diño esae-rak-



Txordo'ri orixe gertaten jakon beintzat!

Illaren asierako egunak onak izaten ziran. Illeko alogera jaso berriko egunetan, ugaritasunaren ezau-garria laster erakisten eban. Zelan? Ba... atara asun-berdi, atara litro bat esaten ebanean gauzak ondo egozan, baiña atara kuartillo bat... txarto.

Tarteratxoan eroaten ebana sakatzeko "asunberdi" bear ebala esaten eban: gutxiago ez jakola urdailla-ren erdiraiño eltzen.

Berari edaten egoanean, asi estarririk eta urdailla-ren ondoraiño dagoan bide guztian arduaren berotasuna somatzea atsegin izaten jakola. Orregaitik, egun onak ziranean janagaz edaten eban erdia, eta janaren amaieran beste erdia dzangada batean; beste-la ez eutsala gustorik artzen.

Egun txarretako jana ganaduen antzekoa izaten zan: jan bat eta edan bat.

Ez eutson jiartilloari ikuturik egiten. Apurka edan ezkerro ez jakon urdailleratuko. Ez eutson gustorik artuko, Orretxegaitik, gogoz kontra izanda be utzik jango eban. gero, azkenean, amaieran dzangadan kuartilloa edan. Orduantxe galditzen zan ondo.

Antxiñako Kale-garbitzailleek astoa eukiten eben zamarrak karriatzeko. Zamarrak Artatik beera, atxetara botatzen ebezen batzuetan baiña beste batzuetan kale-zimaurra egiteko orain "kamiñazpi" lez ezagutzen dogun tokira eroan.

Gaurko Kamiñazpi osoa orain berrogeta bost urte, "Kamiña" baserriaren lurak ziran eta lur areitara eroaten ebezen kaleko zamarrak, eta antxe pillo txikietan zabaldu.

Kamiña baserrikoak antxe ibilten ziran euren eskubare eta sardeagaz zamarren artean egozan poto, trapu, lapiko-zar eta gaiñontzeko balio ez-eben gauza guztiak kentzen. Zamarrak bakarrik lagaten ebezen solorako. Ongarri ona zala esaten eben!

Zer esanik eztago Ondarru'ko kale-garbitzalleen astoak zeregiñ faltarik ez ebela eukiko. Domingo Kanpañaren astoaren antzera, "jan gitxi" baiña karka asko karria bearko ebela urte guztian zear.

Txordo'n astoa ez zan ain txarto egoten. Bere lanak amaitzen ebazanean, Txordo'k beragaz eroaten, eban solora, eta denpora gitxian bada be, antxe eukiten eban larrean.

Baiña neguan eta denpora txarretan ezegoan

larratzerik. Korta'n sartu eta antxe egon bear izaten eban patata azal batzuk eta lasto pixka bat janarizat eukazala.

Lastoa Udalak emoten eutsoen, baiña orretarako Udaletxeko idazkariarengana joan bear izaten zan txartela edo "Vale" bat ataratera.

Bein batean, (beste askotan lez) Txordo'ri txartel eske joatea brururatu jakon.

Udaletxeko idazkaria gizon txiki bat zan. Kastillanoa zala zer esanik eztago.

Gizontxo oni be Txordo erderaz entzutea atsegin izaten jakon. Apurtxo bat adarra jotzea. Txantxetan ibiltea Kale-garbitzalleagaz.

Txordo ikusi ebanean irribarrez urreratu jakon eta lepoan eskoa ipini az onela itandu: Hola Txordo. Cómo tú por aquí? ¡Qué quieres? ¡Una paja! ¿Cómo dices? ¡Una paja! ¡Ay, Txordo, Txordo! ¡Yo ya soy viejo para eso! Erantzun eutson txartela luzatuaz.


Urten eban Txordo'k Udaletxetik, eta eskillaretan beera etorrela, idazkariak esan eutsona aztertzen asi bere artean ziñoala: Iñusente alua da gizon ori. ilarra dala! Zer dakar zer ikusi zarra ixan edo gazti ixan, "Vale" alu bat emoteko?

Orrelakoxea zalako, alkate, sendagille, abade, lantegietako jaube, itxasontzi jaube, arrantzale, kalendar, baserritar, ierri osoak maite izan eban gizona izan zan Txordo!

Eskolara joan barik, berezko argitasuna eukan Ondarru'ko Filosofoa izan zan Txordo.

**IRABALTZA**  
**Azpiri'tar Jose Mari**

# EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazki onein artean bi bakarrik dira bardiñak. Zeintzuk dira?

**KARMELE**

# ZUAITZAK, ETXEAK ETA BESTE KONTU BATZUK

Eskoletako ikasturtea amaitu dan ile onetan, aukeratu barri doguzan Aldundi eta Udalena asi egiten da.

Lorailean izandako auteskundeen ostean alderdi guztiak geratu dira pozik: Batzuk boto geiago lortu dabezalako, besteak antzera geratu diralako eta boto-galtzaileek arerioak uste ebena baino boto gitxiago galdu dabelako.

Azkenengo oneentzat au momentuzko egoera baino ez ei da, gainera komunikabideek (irriti, izparringi, telebista...) sortua.

Inguruan daukagun ikuspegi politikoa oso zabala izan arren (ez ete da zabalegia gu lau katu izanik!), talde aundi bitan banatuko neuke, abertzaleak direnak (zelangoak edo alangoak, desberdintasunik egin barik) eta ez diraenak (onek zelangoak, alangoak eta bestelakoak dira, danatarikoak).

Auteskundeetako emaitzak ikusita, abertzale kopurua %60koa da gitxi gora-beera. Boto emoleen artean, erdia baino geiago (kontuz, ez askoz geiago) baina bakoitza bere aldetik, banatuta eta alkarren kontra. Badirudi abertzaletasuna ezik, beste gauza batzuk artzen direla elburuztat arerio politikoa erratuz. Ez da arritzekoa indarrak makaltzea, kanpokoekaz burruka egiteaz gain etxekoekaz ere egin bearra badago.

Baina emaitzetan batez ere argi geratu danez gorakadarik aundiena izan dauan alderdia PP izan da. Eta ez ori bakarrik, ezin dogu esan aintzinako "patxikozaleen" azkenengo aztarenak diranik, ikusi ere ainbat gazte ikusten da euren artean eta, bai **buru** eta beste alderdikieen artean.

Zer da **PP-k** eskeintzen deustona gaztediari bere aldera erakartzeko? Ez dakit, Gizarte baketsu eta eroso baten itxaropena bearbada. Dana dala geiago arduratzen nau alderdi abertzaleek eskeintzen dabena jakiteak.

\*\*\*

Eremu abertzalearen zuaitzak adar bi daukaz: HB aide batetik eta EAJ-EA bikotea bestetik.

Zuaitz oneri inoiz beste adar batzuk ere urten jakoz baina, edo ingertu egin dira edo kimutuak izan dira, dana dala desagertu egin dira.

Badaukat nire susmoa desagertze orren erruduna gaisotasun edo "virus"-en bat izan ete dan.

Ez ete dabil satorren bat zuaitzaren sustraiak jaten!

\*\*\*

Zer da HB-k gaztediari eskeintzen deustona?

Burruka. Kontuz! Ez darabil berba au gaur kalean erabiltzen dan esanai beragaz (bide-oztopo, apurketa, arrikada, suete...) bere esangura utsean baino: zerbaiten aldeko aldarrikapena.

Gertatzen dana zera da, aldarrikapen orretariko asko aurrerago aipatutako ekintzetan amaitzen direla.

Sutsuegiak? Kementsuegiak? Alaiak eta borrokalariak? Ez dot uste bizimodu erosoegia danik eta arriskuen artean baztarkerian jaustearena ere badago. Baina beste aide batetik gazteak arriskuzaleak ere badiranez...

Y\*

Beste talde biak, EAJ eta EA-k, batez ere auteskundeak eltzen diranean izkuntza gogortu egiten dabe, eta eskubideak ozenkiago, altuago, aldarrikatu. Auteskundeak igaro ondoren urak bere bidera joaten dira, izkuntza baretu egiten da eta gogoa mantsotu.

Badirudi botoen bearrirenagaz batera itxura aldatu egiten dala: aurpegia garbitu, jakea aldatu eta kalera urten.

Boto kontaketa egin ostean, emaitzak aztertu eta gero, orduan datoz etorri bearrekoak: utsak ikusi eta errakuntzak zuzendu. Orduan izaten da etxearen teilatua eta ormak konpontzea eta txukuntzea.

Baina begiratzen da zelan dagozan barruko ormak? Eta zutabe eta agak? Geiago esango neuke, emoten jako ikustaldiren bat oinarrirei, etxearen euskarrirei?

\*\*\*

Adi ibili berarko gara abertzaletasunaren etxeari, gaur inguru guztietatik erasotua ("arazoaren sortzaile" - "atzerakoia" - "arrazakerizalea" - "baztertzaila" - "berekoia" - "batasunaren aurkako"), ez dakion gertatu Pisako dorrearena.

Ori ere or dago, ederra, liluragarria, txarmagarria, polita, ikusgarria, mundu guztiak miretsia, baina, danak dabilz salbatu gurean.

Oinarriak lurrean ondo finkatuta ez daukazanez, okertuta eta erdi jausita.

Ezin da, ikusteko izan ezik, beste ezertarako erabili, ez dau ezertarako balio, turismoa erakartzeko ez bada.

Gure etxearen oinarriak ere ez badoguz jagoten, aurki, laster egoera bardinean ikusi geinke.



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

# EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO



## *Betidanik.*

**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

Itzau begiak une batez eta  
begiratu zeure inguruari.  
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten  
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat  
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?  
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.  
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin  
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.  
Urbiltasuna, begikotasuna,  
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so  
antziñako sukursal orren argazkiari.  
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein  
bulego ta sukursalekin.  
Ez dira ain ezbardiñak.  
Azkenean, garrantzitsuenak  
bere orretan diraelako.  
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori  
ondo dakigu BBK'kook.  
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.  
Baiña leengo berberak gara.  
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz  
eta geureaz onurak itzultzeko.